

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2342

AGINDUA, 2019ko maiatzaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dei egiten zaie itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntzako proiektuan parte har dezaten, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan. (L4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak).

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak onartu duen Heziberri 2020 planak haxe du helburu: Europako esparruan, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan, 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin. Plan horretan sartuta dago «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa», hezkuntza-eredu pedagogikoaren ildo nagusiak jasotzen dituen proiektua. Proiektu horrek paradigma-aldaketa garrantzitsua dakar; izan ere, konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren planteamendutik abiatzen da. Konpetentzien araberako pedagogiaren ikuspegiaren ezaugarria haxe da: eskuratutako ikaskuntzak transferitzea, bideratzea eta konbinatzea, egoera funtzional konplexuak konpontze aldera.

Oinarrizko Hezkuntza da belaunaldi gazteak helduen bizitzarako prestatu behar diren hezkuntza-fasea. Bizialdi osorako oinarri sendoak ezartzen dira, beren bizitzak zentzuz gidatzeko gai izan daitezen, hauta ditzaten beren helburuak, ardura daitezen beren erabakiez eta modu aktibo, kritiko eta arduratsuan parte hartu dezaten gizartean.

Horrenbestez, oinarrizko konpetentziak hartuz lortzen da ikasleentzat definitutako abiapuntuko profil orokorra, hau da, Oinarrizko Hezkuntzaren helburua. Oinarrizko konpetentzien artean, batzuk zeharkako edo generiko gisa definitzen dira: beharrezkoak dira arazoak konpontzeko edo bizitzako zenbait egoerari aurre egiteko. Beste batzuk, berriz, espezifikoak dira, diziplina-alor batekoak edo batzuetakoak. Oinarrizko zehar-konpetentzietako bat da komunikaziorako konpetentzia (hitzezkoa, hitzik gabekoa nahiz digitala).

Aipatutako komunikaziorako konpetentzia (hitzezkoa, hitzik gabekoa nahiz digitala) eskuratzeke, Hezkuntza Saila proiektuak eta esperientziak bultzatzen ari da unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, deialdi espezifikoen bidez zein zuzenean aldaketak sartzeko jarduerak proposatuta, irakaskuntza- edo antolakuntza-praktikak hobetuko dituztenak, eta, horrenbestez, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko aukera emango dutenak.

Gizartean izandako aldaketa eta aurrerapenek eta gizartearen eskura jarri diren baliabide digitalen ekarri dute hezkuntzaren alorrean ere sartzea gizarteak berak ohiko jarduera guztietan erabiltzen dituen bitarteko berriak. Hainbat programaren bidez sartu dira pixkanaka ICTak gure ikastetxeetan; esaterako, Eskola 2.0-ren bidez. Une honetan, sare eta gailu digitalak erabili nahi dira aldaketa pedagogikoa eta metodologikoa sustatzeko. Baliabide teknologikoen erabilerak ikasketa-erritmo desberdinetara egokitzen laguntzen du, berdinen arteko ikasketak bultzatzen, ikasten ikasteko gaitasuna indartzen eta gelaren espazio fisiko eta denborazkoa zabaltzen ikasketarako ingurune birtual eta nonahikora. Horrez gain, hezkuntza-plataforma digitalen bidez, ikasgela kanpoaldera zabaltzen da, eta ikasleek eta haien familiek edozein unetan izan ditzakete baliabide gehiago, eduki analogikoen mende soilik zertan egon gabe. Horri guztiari bide emateko, beharrezkoa da irakasteko eta ikasteko prozesuan baliabide digitalen (baliabide metodologikoak eta tresnak) erabilera eta ezaguera pixkanaka hartzen joatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta Heziberri 2020-ren arabera ezartzen duen 236/2015 Dekretuak zuzeneko ehun bat erreferentzia egiten die eskumenei eta errealitate digitalari, sarreratik hasi «Oinarrizko Hezkuntza amaitu duen ikasleak konpetentzia digitala eta mediatikoa izan behar du, konpetentzia digitalaren arloko esparru europarraren ildoan, egungo herritarrek eskatzen duten alfabetatze eta gaikuntza funtzional osoa bermatzeko», komunikaziorako konpetentzia (hitzezkoa, hitzik gabekoa nahiz digitala) oinarrizko zehar-konpetenzietako bat bezala zehazten duen 7.2 artikulutik igaro, eta 30.4.h) artikuluraino, non zehazten baita «irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan prestakuntza sustatzea, baliabide digitalen bidez». «Informazio eta Komunikazio Teknologiak txertatzea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan» kontzeptua zehaztasunez definitzeko erabiltzen da 12. artikuluko guztia, bere lau atalekin.

Ikastetxeei bultzada eman nahi zaie zenbait proposamen pedagogiko esplora ditzaten eta gartzen jarrai dezaten, eta, alde horretatik, 174/2012 Dekretua eta 174/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzen duen 2017ko urriaren 16ko Agindua dira proposamen horien oinarrietako batzuk. Ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak zehazten du dekretu horrek, eta titulartasun publiko nahiz pribatuko zentroetan aplikatzen da.

Konpetentzia digitalen esparrua oso dinamikoa da; beraz, beste ikastetxeentzako hezkuntza-praktika ona osatzen duten ikastetxe bokazio berritzaileak bultzatu, lagundu eta ezagutzera emateko unea da orain, eta Sare_Hezkuntza izeneko lehendabiziko ikastetxe-sarea sortzeko, eta, horrela, sare horren bilakaera eredu bihurtzeko eta beste ikastetxe batzuei hobetzeko bideak erakutsi ahal izateko.

Ikasketarako eta jakintzarako teknologiak erabiltzeko, beharrezkoa da hezkuntza-baliabide digitalak bilatu, hautatu eta erabiltzea; dagokion ikasturteko programazio didaktikoa osatzen duten ikasketa-jarduerak aurrera eramatea erraztuko duten baliabide digitalak, hain zuzen. Proiektu honek eskatzen du ikasleekin egiten diren hezkuntza-prozesuak aldatzea. Horretarako, Ikasketarako eta Jakintzarako teknologiak jarriko dira ikastetxeen eskura, baliabide horiek erabil ditzaten. Eta horren osagarri, irakasleak prestatzeko zenbait jarduera egingo dira, banaka zein taldean, teknologia horiek erabiltzeko eta curriculumean ezartzeko beharrezkoak diren ezaguerak eta trebetasunak eskura ditzaten.

Gailu digitalak erosteko laguntzen (laster iragarriko dira) onuradun izan ahal izango dira hautatutako ikastetxe hauetako ikasleak, betiere beka baten onuradun izan badira unibertsitateaz kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko beka eta ikasketa-laguntzen ebatzitako azken deialdian, eskola-materialerako.

Horregatik, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua –Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eremuko dirulaguntzak erregulatzeari buruzkoa–, bai, halaber, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarrizko araudia –zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren erregelamendua–, eta apirilaren 9ko 193/2013 Dekretua –zeinaren bidez ezartzen baita Hezkuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionala–, abenduaren 22ko 5/2017 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta zuzkidura ekonomikoa.

1.– Agindu honen xedea da dei egitea itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, parte har dezaten «Sare_Hezkuntza Gelan» izeneko berrikuntzako proiektuan. Proiektu horren helburua da sustatzea irakaste-ikaste prozesuan material eta baliabide digitalak prestatu, horiek gelan erabili eta hori burutu ahal izateko prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa erraztea.

2.– Helburu hori lortzeko, oro har, 300.000 euro bideratuko dira 2019-2020 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura.

3.– Lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko da deialdi hau.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– «Sare_Hezkuntza Gelan» hezkuntza-berrikuntzako proiektuan parte hartu ahal izango dute Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa irakasten duten itunpeko sareko ikastetxeek, bakarka, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta maila horiek irakasten dituzten unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeek eta federazioek.

2.– Aurreko atalean aipatutako erakundeen eta federazioen kide diren ikastetxeek ezin izango dute bakarka «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuan parte hartu, baldin eta dirulaguntzaren onuradun den erakundea edo federazioa deialdi honetara aurkezten bada.

3.– Ikastetxe bakoitzeko, banakako proiektu bat aurkeztu beharko dute erakundeek eta federazioek.

4.– 50 ikastetxe hautatuko dira, gehienez.

3. artikulua.– Proiektuaren baldintzak eta edukia.

1.– «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuak bi ikasturteko iraupena du; hortaz, epealdi horretan parte hartuko dutelako konpromisoa hartu behar dute beren gain parte-hartzaileek. Hautatutako ikastetxe berriek eta «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuaren 2015-2016 ikasturteko eta ondorengoetako deialdietan hautatuak izan zirenek osatzen dute «Sare_Hezkuntza Gelan» Sarea, non eta Berrikuntzako Zuzendaritzak ez duen aurkako ebaluazioa ematen edo OOGk berak ez duen uko egiten.

2.– Heldutasun teknologiaren oinarriko mailan hasten diren ikastetxeak mailaz igo beharko dira deialdian parte hartu bitartean, eta dagokien IKT heldutasunaren ebaluazioan parte hartuko dute.

3.– Hautatutako ikastetxeetan proiektuan diharduten irakasleek, bestalde, parte hartu beharko dute dagokien berritzeguneak antolatzen duen Sare_Hezkuntza izeneko prestakuntzan eta/edo koordinazioan.

4.– Eskatzaileek egiaztatu behar dute badituztela beharrezko azpiegiturak, ekipamendua eta irakasleak proiektua beren gain hartzeko; horrez gain, ziurtatu behar dute azpiegitura berria jarri gabe bi ikasturtez ohiko jarduerari eutsiko diotela.

Komunikazioaren teknologien erabileran jarduera berritzaileak martxan jartzeko, aparatu eta/edo gailu espezifikoak erabili behar dira. Esperimentazio pedagogikoa baliabide horri lotuta dago, horren erabileraren eraginkortasuna kontrastatzeko. Hori dela-eta, deialdiaren xedearekin lotura eta/edo koherentzia duten materialak eskuratu ahalko dira.

5.– Eskatzaileek egiaztatu behar dute ikastetxeko zein erakundeko zuzendaritza-organoei badutela proiektuaren berri eta onartu egin dutela.

6.– Ikastetxe edo erakunde eskatzaileek «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuan duten parte-hartzea zehaztuko dute proiektu baten bidez, edo hainbat proiektu bakarka, ikastetxez ikastetxe, Elkarteetan eta Federazioen kasuan. Alderdi hauek jaso beharko dira:

- a) Inplikazioa eta presentzia ikastetxearen hezkuntza-proiektuan.
- b) Ikasketa digitaleko metodologia pedagogikoak, ikastetxearen, gelaren eta ikasleen eskalan.
- c) Irakasleen trebakuntza teknologikorako zein pedagogikorako jardueren planifikazioa.
- d) Proiektua koordinatzeko, haren jarraipena egiteko eta emaitzak ebaluatzeko prozeduraren xehetasunak eta garapena.
- e) Gailu berriak eskuratzeko beharrak zehaztea.
- f) Ikasketa digitaleko proiektuetan aurretik izandako esperientzia berritzaileak.
- g) Proiektuan parte hartuko duten hezkuntza-taldeak edo -lerroak, irakatsiko diren arloak edo ikasgaiak eta esku hartuko duten irakasleak.
- h) Hezkuntza-komunitatean planaren berri zabaltzeko eta familien parte-hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak.
- i) Proiektuaren edukiak beste talde eta irakasle batzuei transmititzeko aurreikuspena.
- j) «Sare_Hezkuntza Gelan» esperientzian parte hartzearen ondorioz ikasitakoa hedatzeko eta hezkuntza-alorreko beste eragile batzuk edo ikastetxe batzuk trebatzeko aurreikuspena.
- k) Aurkeztutako aurrekontuaren justifikazioa eta banakapena.

7.– Kanpoan geldituko dira 2015-2016 ikasturtetik hezkuntza-berrikuntzako «Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen proiektuak.

4. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoen helburua da bi ikasturteko proiektu bat egitea laguntza eskatzen duen ikastetxean ezartzeko, edo erakunde edo federazioen bidez parte hartzen duten ikastetxe elkartuetan. Proiektu horretan, honako ildo hauetakoren bat edo gehiago landu beharko dira:

- a) teknologia zein material berrien eta baliabide digitalen erabilera ikasgelan, irakasteko eta ikasteko prozesuan.
- b) irakasleak teknologia eta pedagogia aldetik prestatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan material eta baliabide digitalak erabil eta landu ditzaten.
- c) material digitalak sortzea ikasgelan erabiltzeko. Material hori, hezkuntza-sisteman erabiltzeko, eskura jartzea adostuko da Hezkuntza Sailarekin.

2.– Dirulaguntzaren xede izango dira proiektuaren lehen ikasturtean zehar egindako honako gastu hauek:

a) proiektuaren zuzendaritza- koordinazio, jarraipen eta ebaluazio-kostuak oro har, eta prestakuntza-jarduerak eta material digitala prestatzeko lanen kostuak zehazki. Proiektuaren zuzendaritzari, koordinazioari, segimenduari eta ebaluazioari egotz dakizkiokeen gastuek orduko 25 euroren muga izango dute.

b) prestakuntza-jarduera ematearen kostua, prestakuntza ematen duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren arabera (gehienez ere 90 euroko muga orduko), eta ikastaroa emango duen irakaslearen joan-etorriek, ostatu-hartzeak edo otorduek eragindako gastuak, baldin eta prestakuntza-erakundeaz kanpoko denean eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen direnean. Prestakuntza-jarduera hori osorik azpikontratatu ahal izango da.

Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasle-joan-etorrietarako edo jan-edanetarako gastuak.

c) lizentzien kostua eta tresna digitalak erabiltzeko behar diren material curricularrena.

d) esperimentazioan erabiliko diren gailu teknologikoen kostua (ordenagailuak, tabletak eta pizarra digitalak), emandako laguntzaren % 50 gehienez, betiere ikastetxeak aurkeztutako proiektuarekin lotura zuzena badaukate.

5.– artikulua. Gutxieneko betekizunak.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan azaldutako goeretakoren batean dauden erakundeak ezingo dira onuradun izan.

2.– Erakunde eskatzaileak ez du izan behar dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, eta ezta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, batez ere sexuaren bereizkeriaren ondoriozkorik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren arabera.

3.– Erakunde eskatzaileak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko beste laguntza batzuen esparruan horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei laguntzak hauek eman edo, hala badagokio, ordaindu ahal izateko.

6. artikulua.– Betekizunak egiaztatzea.

1.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio laguntza ematen duen organoari zuzenean egiaztatzeko laguntzak eskatzen dituzten erakundeek betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako.

2.– Eskarrietan aukera izango da laguntzak eskatzen dituen erakundeak berariaz adieraz dezan baimena ematen diola organo kudeatzaileari gainerako datu edo dokumentu guztiak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen ahalmenak.

3.– Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez (eskabide-orrian bertan azaltzen da), betebeharrak hauek egiaztatuko dira:

a) Badituela beharrezko azpiegiturak, ekipamendua eta irakasleak proiektua beren gain hartzeko, eta, horrez gain, ziurtatu egiten duela azpiegitura berria jarri gabe bi ikasturtez ohiko jarduerari eutsiko diola.

b) Erakunde eskatzaileak adierazi behar du ea dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako baliabiderik eskatu duen helburu bererako, eta, hala badagokio, ea halakorik jaso duen beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuetatik.

c) Eskaria egiten duen pertsonak edo erakundeak ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, ez eta dirulaguntzak jasotzeko legeko debekurik ere, sexuagatiko diskriminazioaren ondoriozko lege-debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren ildotik.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo/eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan sartuta ez egotea.

e) Egiazkoak direla eskabidean eta horrekin batera aurkeztutako agirietan adierazitako edukiak.

f) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.

g) Eskaera egin duen erakundeko zuzendaritza-organoei badutela proiektuaren berri eta onartu egin dutela.

h) Laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betezen dituela, eta ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotako egoeraren batean.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, <https://www.euskadi.eus> egoitza elektronikoa; aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabide-eredua egoitza elektronikoa honetan egongo da eskuragarri (I. eranskina): <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/sare-hezkuntza-gelan/web01-tramite/eu>

3.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta gainerako dokumentuak. Prozedura osoan zehar, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

Eskabidea egin ostean, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> web-orriaren bidez egin beharko dira hura onartzeko edo ukatzeko ebazpena eman arte egin beharreko izapide guztiak.

4.– Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- III. eta VI. eranskinetan ageri den «Laburpen fitxa eta proiektua», segun eta eskabidea ikastetxe bati bakarka dagokion ala federazio edo elkarte bati.

- Erakundeen kasuan, estatutuz edo erregelamenduz federazio edo elkarte eskatzailearekin erlazionatuta dauden EAEko ikastetxeen zerrenda, haren kodea adierazita.

8. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak.

9. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

1.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria buru den edo hark izendatzen duen pertsona buru den batzorde batek aztertuko eta ebaluatuko ditu aurkeztutako proposamenak; batzorde horretan, gainera, honako hauek hartuko dute parte:

– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako zerbitzuburu batek. Zuzendariak izendatuko du.

– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako hiru lurralde-buruek.

– Berritzegune Nagusiko aholkulari batek. Berritzeguneko zuzendariak izendatuko du.

– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari batek. Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatuko ditu, eta idazkari-lanak egingo ditu.

2.– Batzorde horrek beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, proiektuak behar bezala ebaluatu ahal izateko.

3.– Batzordeak proposamenak hezkuntzako sailburuordeari helaraziko dizkio.

10. artikulua.– Dirulaguntzak emateko irizpideak.

«Sare_Hezkuntza Gelan» proiektuan parte hartuko duten proiektuak hautatzeko, II. eranskinean eskaerak balioesteko ezarritako baremoa hartuko da kontuan. Baremoaren 2. atalean gutxienez 9 puntu lortzen ez dituzten proiektuak baztertu egingo dira esleipen-prozeduratik.

11. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Hautatutako 50 ikastetxeen proiektuen artean banatuko da deialdi honetako zuzkidura ekonomikoa, proiektuan lortzen duen puntuazioaren arabera.

2.– Hautatutako ikastetxeak, haien puntuazioaren arabera, 25 ikastetxeko bi taldetan banatuko dira. Puntuaziorik onena duten ikastetxeen erdiek 8.000 euro jasoko dituzte gehienez, baldin eta proiektua egiteak daukan kostua gainditzen ez bada. Gainerako 25 ikastetxeen artean, geratzen den diruaren bidezko banaketa egingo da, 300.000 eurora arte (muga, 8.000 euro ikastetxeko), baldin eta kasu bakoitzean ez bada gainditzen proiektua egiteak daukan kostua. Azpitalde bien artean berdinduta dauden ikastetxeen kasuan, hogeita bosgarrenak daukan puntuazio bera daukaten ikastetxe horiek lehentasuna daukan lehen azpitalde horretan sartuko dira.

12. artikulua.– Dirulaguntzen bateraezintasuna.

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezinak dira 4. artikuluan xedatutako helburu berbererako beste edozein erakunde publikok edo pribatuk eman dezakeen beste edozein dirulaguntzarekin.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak emango du ebazpena, balorazio-batzordeak egindako proposamenak kontuan hartuta, eta bertan zehaztuko da aurkeztutako parte-hartze proiektuetatik zein hautatu den eta zein ez, bai eta hautatutako proiektuetarako dirulaguntzen zenbatekoa ere.

2.– Hartutako ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie eskaera egin duten erakundeei, agindu hau argitara eman eta hurrengo egunetik hasita sei hileko epean, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, herritar guztiei jakinarazteko.

3.– Gehieneko epea amaitu eta prozeduraren ebazpena jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal dute eskabidea ukatu zaiela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua ondo onartutako.

4.– Deialdiko dirulaguntzak esleitzeko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena bera jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunek betebeharrak izango dituzte:

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotakoak (finantzaketa publikoa dela jakinarazteko publizitate egokia emateko neurriak ere hartu beharko dituzte, dirulaguntzei buruzko lege horren 18. artikulua 3. eta 4. zenbakietan jasotakoarekin bat etorritik):

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua) ezarritakoak.

a) Jarduera gauzatzea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) Laguntza eman dien erakundeari justifikatzea baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela, bai eta laguntza ematea edo laguntzaren onura jasotzea ekarri duen jarduera egin dutela ere.

c) Dirulaguntza ematen duen administrazioak egiaztatzeko egiten dituen jarduketak egiteko laguntza ematea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketarako ere.

d) Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu bada, horren berri ematea laguntza eman dien erakundeari.

3.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, erakunde onuradunek, hamabost egun naturaleko epean –deialdiari buruzko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera–, berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

4.– Proiektua ikastetxeko urteko planean sartzea.

5.– Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko da, ez beste ezertarako.

6.– Hezkuntza Ikuskaritzari helarazi egin behar zaio ikastetxean garatzen diren programen inguruan eskatzen duen informazio guztia.

7.– Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzarekin eta EHUrekin lankidetzan aritzea, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetako praktiketako irakasleak onartuz, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra ikasten diharduten praktiketako ikasleak ere, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integra daitezzen laguntze aldera.

8.– Hezkuntza Saileko web semantikokoaren bitartez, Hezkuntza Komunitatearen esku jartzea proiektuaren bi ikasturteetan zehar sortutako material guztiak.

15. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Ikastetxe onuradunei eman beharreko dirulaguntzak bi epetan ordainduko zaizkie:

a) Lehendabizikoan, hautatutako parte-hartze proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 60; zenbateko hori esleipen-ebazpena jakinarazi, eta, gehienez, bi hileko epean ordainduko da.

b) Bigarreanean, gainerako % 40a, hurrengo paragrafoan adierazitako justifikazio-dokumentazioa dagokion epean jaso ondoren.

2.– 2020ko uztailaren 1a baino lehen (proiektuaren lehenengo ikasturtea), erakunde onuradunek, <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> helbidean, «Justifikazio-kontua» agiria aurkeztu beharko dute behar bezala beteta (V. eranskina). Agiri hori modu elektronikoa aurkeztu beharko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/sare-hezkuntza-gelan/web01-tramite/eu>

«Justifikazio-kontua» agirian, jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua jasoko da, eta zerrendan hauek zehaztuko dira: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, ordainduta badago, noiz ordaindu zen. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera eman bada, gertatutako desbideratzeen berri ere eman beharko da.

Onuradunek zaintzapean eduki beharko dituzte justifikazio-kontuan gastu eta inbertsio gisa egiaztatzen dituzten agiriak.

3.– 2021eko uztailaren 1a baino lehen (proiektuaren bigarren ikasturtea), erakunde onuradunek, <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> helbidean, proiektuaren garapenari, egikaritzeari eta ebaluazioari buruzko txosten bat aurkeztu beharko dute (VI. eranskina). «Memoria» dokumentua behar besteko aurrerapenarekin argitaratuko da, atari horretan.

4.– Hezkuntza Sailak dirulaguntza egoki erabiltzen ari dela frogatzeko modua izateko iruditzen zaizkion justifikazio-kontuak egiaztatu ahal izango ditu, eta horretarako, gastu jakin batzuen justifikazio-agiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

5.– Programaren iraupena bi ikasturtekoa den arren, gastu guztiak artikuluko 2. apartatuan ezarritako epean aurkeztu behar den dokumentazioan justifikatu beharko dira –proiektuaren lehen ikasturteko gastuak–.

16. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Halaber, laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan jazotako aldaketa oro jakinarazi beharko da, eta hura emateko ebazpena aldatzea eragin ahal izango du, baldin eta onuraduna izateko ezarritako baldintza minimoak errespetatzen badira, betiere. Proiektuari egoztekoak diren justifikatutako gastuek ez badute onartutako zuzkiduraren zenbatekoa gainditzen, zuzkidura hori murrizteko ebazpena emango da eta, hala badagokio, sobera emandako zenbatekoa itzultzeko eskatuko zaio ikastetxe onuradunari.

17. artikulua.– Ez-betetzearen araubidea.

1.– Dirulaguntzen erakunde onuradunek, nolana ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargurako laguntza publikoak erabiltzeagatik ezartzen den zehapen-araubideari eutsi beharko diote, eta –Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoa aplikatuz– honako kasu hauetan, berriz, eman eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko dute, osorik edo partez, baita aplikatu daitezkeen legezko interesak ere (berandutze-interesa barne dela):

a) Hauetan adierazitako itzulketa-kausaren batean egotea: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorraren 37. artikulua, edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikulutik 93. artikulura.

b) Erakunde onuradunak dirulaguntza ez erabiltzea eskatu zen eta eman zen xede bererako.

c) Ez gauzatzea dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera.

d) Ez justifikatzea interesa erakutsi zuen xede jakinetarako aplikatu izana.

e) Oro har, ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluan ezarritako betebeharrak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen aipatutako legea), bai eta agindu honetan edo emakida-ebazpenean ezarritakoak ere.

2.– Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

18. artikulua.– Datu pertsonalak.

Agindu honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentuetan jasotako datu pertsonalen tratamendua Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak egingo du, datuen tratamendua «arduradun» gisa. Datu pertsonal horien tratamenduaren xede izango da deialdi hau kudeatu eta ebazpena ematea. Horren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskaeran oinarritzen da xede hori.

Interesdunek beren datuei buruzko irispide-eskubidea, zuzentzekoa, ezereztekoa eta transferitzekoa erabil ditzakete, bai eta datuen tratamendua mugatzekoa edo hari aurka egiteko eskubidea ere; horretarako, idazki bat bidali behar dute helbide honetara: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan aipatutako dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende egongo dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legean; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategiaren VI. tituluan eta VII. tituluaren III. kapituluan; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudian (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua).

2019ko maiatzaren 17a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 8a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako helbidea *

Elektronikoa Telefono mugikorra _____

Abisuak jasotzeko datuak

Doako abisu-sistema bat erabil dezakezu, helbide elektronikoaren bidezkoa edo SMS bidezkoa, jakinarazpenen edo komunikazioen bat bidaltzen dizuten bakoitzean horren berri ematen dizuna.

Abisuetarako bidea	Telefono-zenbakia/Posta elektronikoa
SMSa	
Helbide elektronikoa	

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza *

Euskara Gaztelania

Erantzukizunpeko adierazpenak

- Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.
- Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, berariaz aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak¹.
- Egiazkoak dira eskabide honetan eta honi gehitutako agirietan adierazitako datuak.
- Ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dauzka.
- Baditu beharrezko azpiegiturak, ekipamendua eta irakasleak proiektua beren gain hartzeko, eta, horrez gain, ziurtatu egiten du azpiegitura berria jarri gabe bi ikasturtez ohiko jarduerari eutsiko diola.
- Eskaera egin duen erakundeko zuzendaritza-organismoek badute proiektuaren berri eta onartu egin dute.
- Laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen ditu, eta ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotako egoeraren batean.

¹Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena betez.

Lehenago aurkeztutako agiriak

Baimena ematen dut agiri hauek kontsultatzeko:

Agiriaren izena	Zer egunetan eman den	Zer organotan eman den

Baimenak

Araudi aplikagarriarekin bat etorritz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Tributu-betebeharrak egunean ordaindu izanaren datuak (EAEko foru-aldundiak edo Zerga Administrazioko Estatu Agentzia).
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ordaindu izanaren datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia–GSDN).
- HONEN KONTRA NAGO: prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztatzearen kontra (39/2015 Legearen 28. artikulua). Kontra egonez gero, prozeduran behar diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.
- Administrazio publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta beharrezko egiaztapenak egin ere.

_____, _____ (a)

(Lekua)

(Eguna)

(Sinadura)

II. ERANSKINA
ESKAERAK BALORATZEKO BAREMOA

1.– Ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduaren definitutako taldeko kompetentzia digitalaren maila, 174/2012 Dekretuaren eta dekretu horren eranskina eguneratzen duen 2017ko urriaren 16ko Aginduaren arabera.	Gehienez: 50 puntu.
<ul style="list-style-type: none"> - HTEko maila aurreratua (50 puntu). - Maila ertaina (30 puntu). - Oinarrizko maila (10 puntu). 	
2.– Proiektuaren edukia	Gehienez: 18 puntu
2.1.– Ikastetxearen heziketa-proiektuan duen inplikazioa eta presentzia.	4 puntu, gehienez ere
2.2.– Ikaskuntza digitalaren metodologiak, ikastetxe-, ikasgela- eta ikasle-mailan, Heziberri 2020ren Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruaren arabera.	6 puntu, gehienez ere
2.3.– Irakasleen prestakuntza teknologiko eta pedagogikorako jardueren plangintza.	3 puntu, gehienez ere
2.4.– Zehaztapena, koordinaziorako prozeduraren garapena, proiektuaren jarraipena eta emaitzen ebaluazioa.	3 puntu, gehienez ere
2.5.– Ikaskuntza digitaleko proiektuetan aurretik izandako esperientzia berritzaileak.	2 puntu, gehienez ere
3.– Konpromisoa eta proiektuaren inpaktua	Gehienez: 12 puntu.
3.1.– Proiektuan parte hartuko duten hezkuntza-taldeak edo -lerroak, irakatsiko diren arloak edo ikasgaiak eta esku hartuko duten irakasleak.	2 puntu, gehienez ere
3.2.– Hezkuntza-komunitatean proiektuaren berri zabaltzeko eta familien parte-hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak	3 puntu, gehienez ere
3.3.– Parte hartzeko proiektuaren edukiak beste talde eta irakasle batzuei transmititzeko aurreikuspena.	4 puntu, gehienez ere
3.4.– Beste eragile edo ikastetxe batzuei esperientziatik eratorritako ezaguerak transmititzeko eta prestakuntza emateko aurreikuspena.	3 puntu, gehienez ere
4.– Ikastetxe eskatzaileen ikasle bekadunen ehunekoaren arabera, proportzio zehatzean, azken datu ofizialen arabera.	20 puntu, gehienez ere
Gehieneko puntuazioa, guztira	100 puntu

III. ERANSKINA

IKASTETXE ESKATZAILEARENTZAKO LABURPEN-FITXA ETA PROIEKTUA

IKASTETXEAREN KODEA:IKASTETXEA:.....

Ikastetxearen koordinatzailea Sare_Hezkuntza Gelan proiekturako:

A) Ikastetxe eskatzailearen datu orokorrak.

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
Itundutako gela kopurua guztira				
Irakasle-kopurua guztira				
2018-2019 ikasturterako Sare_Hezkuntza Gelan proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua.				

B) Oinarrizko ezaugarriak, Sare_Hezkuntza Gelan proiektuarenak 2018-2019 ikasturterako.

Etapia	Maila	Hizkuntza -lerroa	Talde kop.	Ikasle kop.	Parte hartuko duten irakasleen ehunekoa	Ikaskuntza digitaleko curriculumaren ehunekoa

C) Aurrekontuaren justifikazioa eta banakapena.

Kontzeptua	Zenbatekoa

D) Proiektua.

Inplikazioa eta presentzia ikastetxearen hezkuntza-proiektuan (orrialde 1, gehienez).

--

Ikaskuntza digitalaren metodologiak, ikastetxe-, ikasgela- eta ikasle-mailan, Heziberri 2020ren Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruaren arabera (orrialde 1, gehienez).

Irakasleen trebakuntza teknologikorako zein pedagogikorako jardueren planifikazioa (orrialde 1, gehienez).

Proiektua koordinatzeko, haren jarraipena egiteko eta emaitzak ebaluatzeko prozeduraren xehetasunak eta garapena (orrialde 1, gehienez).

Gailu berriak eskuratzeko beharrak zehaztea.

Ikaskuntza digitaleko proiektuetan aurretik izandako esperientzia berritzaileak (orrialde 1, gehienez).

Proiektuan parte hartuko duten hezkuntza-taldeak edo -lerroak, irakatsiko diren arloak edo ikasgaiak eta esku hartuko duten irakasleak (orrialde 1, gehienez).

Hezkuntza-komunitatean planaren berri zabaltzeko eta familien parte-hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak (orrialde 1, gehienez).

Proiektuaren edukiak beste talde eta irakasle batzuei transmititzeko aurreikuspena (orrialde 1, gehienez).

Beste eragile edo ikastetxe batzuei esperientziatik eratorritako ezaguerak transferitzeko edo prestakuntza emateko aurreikuspena (orrialde 1, gehienez).

IV. ERANSKINA

FEDERAZIO/ELKARTE ESKATZAILEARENTZAKO LABURPEN-FITXA ETA PROIEKTUA

Federazioa/Elkartea: Ikastetxe elkartuen kop.:

A) Aurkeztutako ikastetxeen zerrenda.

Ord. zk.	Ikastetxearen kodea	Ikastetxea

B) Ikastetxearen datu orokorrak.

IKASTETXEAREN KODEA: IKASTETXEA:

Federazioaren/Elkartearen koordinatzailea Sare_Hezkuntza Gelan proiekturako:

.....

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
Itundutako gelen kopurua guztira				
Irakasle-kopurua guztira				
2018-2019 ikasturterako Sare_Hezkuntza Gelan proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua.				

C) Oinarrizko ezaugarriak, Sare_Hezkuntza Gelan proiektuarenak 2018-2019 ikasturterako.

Etap	Maila	Hizkuntza-lerroa	Talde kop.	Ikasle kop.	Parte hartuko duten irakasleen ehunekoa	Ikaskuntza digitaleko curriculumaren ehunekoa

D) Aurrekontuaren justifikazioa eta banakapena.

Kontzeptua	Zenbatekoa

E) Proiektua.

Inplikazioa eta presentzia ikastetxearen hezkuntza-proiektuan (orrialde 1, gehienez).

Ikaskuntza digitalaren metodologiak, ikastetxe-, ikasgela- eta ikasle-mailan, Heziberri 2020ren Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruaren arabera (orrialde 1, gehienez).

Irakasleen trebakuntza teknologikorako zein pedagogikorako jardueren planifikazioa (orrialde 1, gehienez).

Proiektua koordinatzeko, haren jarraipena egiteko eta emaitzak ebaluatzeko prozeduraren xehetasunak eta garapena (orrialde 1, gehienez).

Gailu berriak eskuratzeko beharrak zehaztea.

Ikaskuntza digitaleko proiektuetan aurretik izandako esperientzia berritzaileak (orrialde 1, gehienez).

Proiektuan parte hartuko duten hezkuntza-taldeak edo -lerroak, irakatsiko diren arloak edo ikasgaiak eta esku hartuko duten irakasleak (orrialde 1, gehienez).

Hezkuntza-komunitatean planaren berri zabaltzeko eta familien parte-hartzea sustatzeko aurreikusitako neurriak (orrialde 1, gehienez).

Proiektuaren edukiak beste talde eta irakasle batzuei transmititzeko aurreikuspena (orrialde 1, gehienez).

Beste eragile edo ikastetxe batzuei esperientziatik eratorritako ezaguerak transferitzeko edo prestakuntza emateko aurreikuspena (orrialde 1, gehienez).

2019ko maiatzaren 17a, ostirala

V. ERANSKINA

(PROIEKTUKO LEHEN IKASTURTEAN BAKARRIK)

JUSTIFIKAZIO-KONTUA
GASTU-EGIAZTAGIRIEN BALANTZEA BEHIN BETIKO BALANTZE EKONOMIKOA

1.- GASTU-EGIAZTAGIRIEN ZERRENDA.

LANGILE-GASTUAK							
	Mota	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Gutzizko zenbatekoa €	Egotzitako zenbatekoa €
1....							
LANGILE-GASTUAK, GUZTIRA							

BESTELAKO GASTUAK							
	Mota	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Gutzizko zenbatekoa €	Egotzitako zenbatekoa €
1....							
BESTELAKO GASTUAK, GUZTIRA							

GAILUEN EROSKETA							
	Mota	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Gutzizko zenbatekoa €	Egotzitako zenbatekoa €
1....							
GAILUEN EROSKETA, GUZTIRA (emandako laguntzaren % 50, gehienez)							

2.- PROIEKTUAREN BEHIN BETIKO BALANTZE EKONOMIKOA.

JUSTIFIKATUTAKO GASTUEN LABURPENA	
Langile-gastuak	
Bestelako gastuak	
Gailuen erosketa	
BEHIN BETIKO GASTUAK, GUZTIRA	

BEHIN BETIKO DIRU-SARRERAK			
Finantzaketa propioa			
Finantzaketa publikoa	Eusko Jaurlaritzako Saila		
	Foru Aldundia		
	Udala		
	EUDEL		
	Estatuko Administrazioa		
	Europako Batzordea		
	Bestelakoak		
	Finantzaketa publikoa, guztira		
BEHIN BETIKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA			

Ohar argigarria

Gastuen zerrenda sailkatua justifikatzerakoan, datu hauek eman beharko dira:

- Mota: egiaztagiria zer den zehaztu; faktura, nomina, TC1 edo TC2.
- Zenbakia: egiaztagiria faktura bat baldin bada, eman zaion zenbakia, eta, halakorik baldin badago, seriea.
- Data: fakturaren jaulkipen-data. Nomina baldin bada, zein hiletakoa den.
- Jaulkitzailea/hartzailea: fakturaren jaulkitzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena. Nominen kasuan, enplegatua izen-abizenak.
- Kontzeptua: fakturan agertzen den kontzeptua.
- Guztizko zenbatekoa: fakturaren edo nominaren guztizko zenbatekoa zehaztu.
- Egotzitako zenbatekoa: guztizko zenbateko horretatik, zehaztu zer zenbateko egozten zaion dagokion kontzeptuari.
- Guztizkoa: faktura eta nomina bidez kontzeptu bakoitzerako justifikatutako guztiaren batura izango da guztizko zenbatekoa.

2019ko maiatzaren 17a, ostirala

VI. ERANSKINA

MEMORIA (BIGARREN IKASTURTEAN BAKARRIK)

(EUSKO JAURLARITZAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAN KARGATUKO DA BEHAR BESTEKO
AURRERAPENAREKIN)